



Ehun urte

Ehun urtez Aupa Real! Beti Real! bihotzetan...
Ehun-urtez Aupa Real! Beti Real! ahotsetan.

Ehun urtez bizi izaten
badaki maiteminak
oso harro daramatzagu
kolore txuri urdinak

Ehun-urtez Aupa Real! Beti Real! bihotzetan
Ehun urtez Aupa Real! Beti Real! ahotsetan.

Hondartzan abiatu eta
hasi ginen Ondarretan
garenera iritsi gara
Atotxa eta Anoetan.

Ehun urtez. Aupa Real!...

Oroimenak gordetzen duen
barren-barreneko poza
Puertollano edo Atotxa
El Molinon, Zaragoza.

Ehun urtez Aupa Real! Beti Real! bihotzetan
Ehun urtez Aupa Real! Beti Real! ametsetan.

Irabaztean apaldu
galtzean galdu ongi
harrobia hor daukagu
balio hoien harrobi...

Andoni Egaña
2009 - Maiatza